

# BIZIMODUA INDUSTRIA MODERNOA AURRETIK

*Industria modernoa etorri aurretik, nekazaritza zen hemen nagusi, XVIII.mende bukaeran ezinbestekoa zen bizitzeko oñatiarrentzat. Baina, baserriko bizimoduaz gain, baziren beste lanbide batzuk ere garai hartan. Haien berririk izan al duzue? Hemen jaso ditugun haien inguruko zenbait pista, zuen erreportajearen erabiltzeko:*



## NEKAZARITZA ETA BASERRIKO BIZIMODUA

XVIII.mendearen bukaeran oñatiarrentzat ezinbestekoa zen nekazaritza: urtean zehar bi uzta izaten zituzten eta karea erabiltzen zuten lurra ongarrizteko. Produktu garrantzitsuenak hauek ziren: garia eta artoa. Gaztaina ere asko jasotzen zen mendian eta familien euskarri bihurtu zen. Errotak ere oso garrantzitsuak izan dira Oñatin, 1860an 20 zeuden martxan guztira!

**Baserriko bizimodua zelakoa zen deskribatzen duten hiru pasarte jaso ditugu [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) orrian hiru oñatiarrek kontatutakoak:**

- **Enrike Guridi Egaña: BASERRIKO BIZIMODUA; UMETAKO LANAK**

Baserrian hiru behi inguru, txerria eta untxiak izaten zituzten. Umetatik lan egin beharra izaten zen, batez ere "ittaurrean". Baratzea eta soroa ere bazituzten eta denetarik hartzen zen orduan. Inguruetan gari asko hartzen zen lehenago. Torreauzoko baserri "fuerteenak" zeintzuk ziren. <http://www.ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-041-005/>

- **Rosario Kortabarría Urrutia: BASERRIKO EGUNEROKO BIZIMODUA**

Baserriko bizimoduaren inguruko azalpenak. Goizean ganaduei azpiak egin ondoren gosaltzen zuten. Salda eta esnea zopekin gosalduta ondoren sorora lanera.



Bazkaltzeko babak jaten zituzten, besterik ez zelako egoten. Emakumeek sukaldea jaso eta gizonak siesta egiten zuten. Igandeetan goizean mezara joaten ziren, gero emakumeek etxea jaso eta gizonak bestelako lanak.  
<http://www.ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-028-001/>

- **Julian Alustiza: MAIATZERO ETXEKO EHUNA GARBITZEN**

Gero 'urratu' egiten zen ehuna, errekan jota. Urtero, maiatzean, etxeako ehun guztia garbitzen zen. Ehuleak tertulia ere maite zuten, kontulari ezagunak ekartzen zituztelarik batzuetan. <http://www.ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-181-004/>

## **IKAZKINTZA**

Mende askotan zehar, burdinola eta errementerietarako sutegetan erabiltzen zuten egur-ikatzak, harri-ikatzak baino nahiago baitzuten olagizonak eta errementariak. XX. mende hasieran industria asko zabaldu zen, eta ez zenez ez petroliorik ez argindarrik

erabiltzen, egur-ikatzaren beharra izugarri areagotu zen. Ondorioz, txondor ugari egin zen Euskal Herri osoko basoetan eta Oñatin, adibidez, Iturrigorriko basoa guztiz soildu zuten txondorrek egiteko. Atera kontuak: burdin tona bat egiteko, bi tona ikatz behar ziren. Eta bi tona ikatz egiteko, lau tona egur!

Txondorra egin, zaindu eta ikatz bihurtzea lan handia eta arretaz zaindu beharrekoa izaten zen, deskuidu txiki batekin txondorra erre eta lan guztia pikutara joateko arriskua egoten zen eta.

- **Juane Urkia Elorza:**  
**“UMETAN IKAZKIN LANEAN”**

Hamar urterekin aitari ikazkintzan laguntzen zion. Txondorra egosi egin behar izaten zen, ez erre. Ikatza lantegietara saltzen zuten, tartean Orbegozori. Ikatza egiteko pago-egurra erabiltzen zuten. Gaztainarekin ere egin zuten ikatza behin, errementari batentzat espresuki.



<http://www.ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-071-019/>

## **KAREGINTZA**

Oñatin 80 karobi baino gehiagoren aztarnak daude baserri inguruetan eta basoetan. Haietako gehienak desagertuta edo nahiko egoera kaxkarrean daude, baina badira egoera onean diren bakarren batzuk. Baserri batzuek bere karobi propioa izaten



zituzten, edo bat baino gehiago. Beste batzuetan, berriz, baserri bi edo hiru elkartu eta karobi bat egiten zuten erabiltzeko.

**Karobi lana oso gogorra** izaten zen, su-egurra eta kareharria gurdietan ekarri behar zelako, guztia modu egokian tolestu, sua eman eta 24 orduz norbait egon behar izaten zen zaintzen. Azkenik, karea ateratzen zen, makina bat laguneren artean.



**Azken karobiak duela 50-60 urte piztu ziren.**

#### **ZERTARAKO ERABILTZEN ZEN KAREA?**

- Soroetako lurra ongarritzeko.
- Kaltegarriak ziren zomorroak akabatzeko. Horregatik hazia kare pittin batekin nahastuta ereiten zen, eta fruta arbolen enborra karez zuritzen zen.
- Kortak eta ikuiluak desinfektatzeko eta beste eraikuntza batzuetan gaixotasunak saihesteko.

- Animalien hanketako gaitzak sendatzeko.
- Baserrietako paretak zuritzeko.
- “Morteroa” egiteko, eraikuntzan masa bezala erabiltzeko.

**Hona hemen Kareari buruz Oñatiko pertsona nagusi batek kontatutako bi pasarte [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) orrian:**

- **Pedro: “KAREA SALDU PARTIKULARREI EDO ANTZUOLAKO KURTIDERIARA”**

Zenbaitek lau urtetik behin egiten zuen karea, baina beraiek urtean behin ere egin izan zuten, karobi txikia zuten eta. Inguruetan kare gehien egiten zutenak beraiek eta Urzelairenekoak izaten ziren. Karea nora saltzen zuten; etxea zuritzeko, Antzuolara kurtideriara.

<http://www.ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-029-003/>

- **Pedro: “KAREA EGITEARI NOIZ ETA ZERGATIK UTZI ZITZAION:**

<http://www.ahotsak.eus/onati/pasarteak/ona-029-002/>